

<p>2.2. ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEA EUSKARAZ JARTZEN DUTEN ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK</p>	<p>2.2. SUBVENCIONES A ENTIDADES QUE PONEN EN EUSKERA SUS RÓTULOS, IMAGEN CORPORATIVA Y SITIO WEB.</p>
<p>1. Xedea.</p>	<p>1. Objeto</p>
<p>Deialdi honen xedea hauex da: 2026an beren egoitzetako errotuluak, irudi korporatiboa euskara hutsean edo ele bitan edo webgunea ele bitan jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.</p>	<p>Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones a entidades que, durante el ejercicio de 2026, ponen en euskera, íntegramente o bilingüe, los rótulos de sus sedes, su imagen corporativa o en bilingüe su sitio web.</p>
<p>2. Onuradunak.</p>	<p>2. Personas o entidades beneficiarias</p>
<p>Oinarri-arau hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak helbide fiskala Arrasaten daukaten pertsona fisikoek edo juridikoek eska ditzakete; bai eta beren jarduera ekonomikoa Arrasaten dauden lokaletan egiten dutenek ere.</p>	<p>Las subvenciones que se regulan a través de estas bases podrán ser solicitadas por las personas físicas o jurídicas que tengan su domicilio fiscal en Arrasate, o bien desarrollen su actividad económica en locales ubicados en Arrasate.</p>
<p>Honako hauek programa honen aplikazio eremutik kanpo daude:</p>	<p>Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente programa los siguientes supuestos:</p>
<p>a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastolak... eta entitate publikoak.</p>	<p>a) Las entidades cuyo objeto sea la normalización del euskera –es decir, asociaciones de euskera, euskaltegis, ikastolas, ...- y las entidades públicas.</p>
<p>b) 50 langiletik gorako enpresa edo entitate handiak.</p>	<p>b) Las grandes empresas o entidades de más de 50 personas empleadas</p>
<p>c) Aurreko hizkian aipatzen diren enpresa edo entitateenak diren enpresak, haien kapital soziala %50etik gorakoa denean.</p>	<p>c) Las empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a las empresas o entidades citadas en la letra b).</p>
<p>3. Bete beharreko baldintzak.</p>	<p>3. Requisitos a cumplir</p>
<p>Dirulaguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:</p>	<p>Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos:</p>
<p>- Edozein kasutan eta kasu guztietarako:</p>	<p>- En cualquier caso y para todos los supuestos:</p>
<p>a) Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da.</p>	<p>a) El texto en euskera deberá estar redactado correctamente.</p>
<p>b) Dirulaguntza jaso behar duen jarduera 2026an egindakoa izango da.</p>	<p>b) La actividad objeto de la subvención deberá haber sido realizada dentro del ejercicio 2026.</p>
<p>- Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:</p>	<p>- Para los supuestos de rótulos e imagen corporativa:</p>

a) Ez izatea pertsonaren izen-deitura hutsak, kasu horretan ez baita emango ezelako dirulaguntzarik.	a) No contener únicamente el nombre y apellido de la persona, dado que en dicho supuesto no se concederá ningún tipo de subvención.
b) Testua euskara hutsez edo euskaraz eta erderaz izatea.	b) Tener el texto únicamente en euskera o bien en euskera y en castellano u otro idioma.
- Webguneen kasuetan:	- Para los supuestos de sitios web:
a) Helbide fiskala Arrasaten izatea.	a) Tener el domicilio fiscal en Arrasate.
b) Webgunea euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egotea.	b) Tener la página en euskera y castellano.
4. Aurkeztu beharreko agiriak.	4. Documentación a presentar
Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:	Junto con el modelo de solicitud, la persona solicitante deberá presentar la siguiente documentación:
- Edozein kasutan eta beti:	- En cualquier caso y para todos los supuestos:
a) Egindako gastuen fakturak	a) Facturas de los gastos realizados.
b) Oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan xedatzen den moduan, eskatzaileak administrazioarekiko zerga obligazioak betetzen dituela egiaztatzea. Dirulaguntza eskaerak 3.000 eurotik beherakoak direnez, goian esandako dokumentazioa aurkeztu beharrean, interesdunaren edo entitatearen ordezkariaren zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du eskatzaileak, zerga obligazioak betetzen dituela adierazteko.	b) Acreditar, de la forma prevista en el artículo 7 de las bases generales, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración. Asimismo, puesto que las solicitudes de subvención son de un importe inferior a 3.000 euros, dicha documentación podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona interesada o representante de la entidad de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Errotuluen kasuetan:	- Para los supuestos de rótulos:
a) Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.	a) Documento o fotografía donde se recoge el nombre del rótulo
b) Udalak emandako lizentzia urbanistikoa. Ziurtagiri hori Arrasateko Udalak berak egin behar duenez, ofizioz egiaztatuko da. Behin dirulaguntza eskaera aurkeztu ondoren, eskatzaileak datu hori egiaztatzeko baimena eman duela ulertuko da.	b) La correspondiente licencia urbanística concedida por el Ayuntamiento. Como quiera que este documento debe ser emitido por el propio Ayuntamiento de Arrasate, se comprobará de oficio, considerándose que, al presentar la solicitud de subvención, la persona interesada autoriza la comprobación del dato.
- Irudi korporatiboaren kasuetan:	- Para los supuestos de imagen corporativa:
a) Entitateak egin edo berritutako elementu bakoitzaren ale bat.	a) Un ejemplar de cada elemento elaborado o renovado por la entidad.

- Webguneen kasuetan:	- Para los supuestos de sitios web:
a) Webgunearen helbidea.	a) Dirección del sitio web.
5. Eskaerak aurkezteko epea	5. Plazo de presentación de solicitudes
2026an egindako ekintzen eskaerak abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu behar dira. Hala ere, dirulaguntzaren xede den ekintza azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten denean epea hilabete luzatuko da, 2027ko urtarrilaren 31ra arte. Ondorio horietarako, eta beste dokumentazio baten faltan, faktura egiteko eguna faktura emateko egunarekin bat datorrela ulertuko da, eta faktura 2026koa izan beharko da.	Las solicitudes de las acciones realizadas durante el año 2026 deberán ser presentadas antes del 31 de diciembre. Sin embargo, cuando la acción objeto de subvención se realice entre el 1 de noviembre y el 31 de diciembre el plazo se amplía en 1 mes, hasta el 31 de enero de 2027. A estos efectos, y a falta de otra documentación, se considerará que la fecha de realización coincide con la fecha de emisión de la factura, la cual deberá ser del año 2026.
6. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.	6. Unidad administrativa encargada de la tramitación
Euskara zerbitzuak izapidetuko ditu eskaerak.	Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Euskera
7. Eskaerak baloratzeko irizpideak.	7. Criterios de valoración de las solicitudes
Kontzeptu eta entitate bakoitzeko dirulaguntza bat baino ez da emango. Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:	Solamente se concederá una subvención por concepto y entidad. Para el cálculo de las ayudas a conceder, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:
7.1. Errotuluen kasuan	7.1. Para los supuestos de rotulación.
a) Errotulua euskara hutsez jartzen bada, dirulaguntza kostuaren %50 izango da, eta gehienez ere 300 €-koa.	a) En el supuesto de que el rótulo sea puesto íntegramente en euskera, la subvención será del 50% del coste, con un límite máximo de subvención de 300 €.
b) Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jartzen bada, dirulaguntza kostuaren %25 izango da, eta gehienez ere 150 €-koa. Edozelan ere, euskarazko testuak lehentasuna izan beharko du, kokalekuari, neurriei edota intentsitateari dagokienez.	b) En el supuesto de que el rótulo sea puesto en euskera y castellano, la subvención será del 25% del coste, con un límite máximo de 150 €. En cualquier caso, se deberá dar prioridad al texto en euskera, respecto a la ubicación, medidas o bien intensidad.
7.2. Irudi korporatiboaren kasuan.	7.2. Para los supuestos de imagen corporativa.
7.2.1. Kontzeptua:	7.2.1 Concepto:
Programa honetan xedatzen diren dirulaguntzak emateko, honako hauek irudi korporatiboaren elementutzat joko ditu Udalak:	De cara a la aplicación de las ayudas previstas en el presente programa, el Ayuntamiento considerará como elementos de la imagen corporativa los siguientes:
a) Gutun-azalak	a) Sobres

b) Idazpurua daramaten orriak.	b) Hojas con membrete.
c) Bisita txartelak.	c) Tarjetas de visita.
d) Entitatea identifikatzeko zigilua.	d) Sello de identificación de la entidad.
e) Albarana, fakturak...	e) Albarán, facturas...
f) Ibilgailuak errotulatzea.	f) Rotulación de vehículos.
7.2.2 Zenbatekoa:	7.2.2 Cuantía:
a) Irudi korporatiboa euskara hutsez bada, dirulaguntza kostuaren %50 izango da, eta gehienez ere 120 €-koa.	a) En el supuesto de que la imagen corporativa sea impresa íntegramente en euskera, la subvención será del 50% del coste, con un límite máximo de 120 €.
b) Irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz badago, dirulaguntza kostuaren %25 izango da, eta gehienez ere 60 €-koa.	b) En el supuesto de que la imagen corporativa sea impresa en euskera y castellano, la subvención será del 25% del coste, con un límite máximo de 60 €.
7.3. Webguneen kasuetan	7.3. Para los supuestos de sitios web
a) Web orria euskaraz eta gaztelaniaz eginez gero, dirulaguntza kostuaren %40 izango da, eta gehienez ere 300 €-koa.	a) En el supuesto de confeccionar la página en euskera y castellano la subvención será del 40% del coste, con un límite máximo de 300 €.
8. Aurrekontua.	8. Presupuesto.
Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 4.000 €-koa da, eta "1.0210.471.335.00.01 – Irudi korporatiboak aldatzeko dirulaguntzak" kontu sailaren kontura.	El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 4.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0210.471.335.00.01 – Subvenciones para el cambio de imágenes corporativas".
Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.	El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.
9. Dirulaguntzak justifikatzea	9. Justificación de las subvenciones
Arrasateko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, 61. artikuluan xedatzen duenaz gain, oinarri-arau espezifiko hauen 4. artikuluan eskatutako agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak. Agiriok dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu behar dira.	Además de lo dispuesto en el artículo 61 de la Ordenanza General de Subvenciones de Arrasate, las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 4 de las presentes bases específicas, a presentar juntamente con la solicitud de subvención.

10. Ordainketa	10. Pago
Justifikatu ondoren, dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez emango da, dirulaguntza ematea erabaki eta hilabeteko epean.	La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo de concesión.
11. Klausula gehigarria	11. Cláusula adicional
Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.	En todo lo no recogido expresamente en la presente convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.